

«Inpresioa izan dut biluztu egin naizela»



Baztango filologoarentzat zaila izan da liburua idaztea. Hala ere, gustura errepikatuko luke esperientzia. :: IGNACIO PÉREZ

Pello Salaburu Idazlea eta EHU-ko irakaslea. Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea izan zena literatura munduan sartu da lehen aldiz 'Errateko nituenak' liburuarekin

Pello Salaburuk 'Errateko nituenak' liburua argitaratu du Erein argitaletxean.

Orain arte Salaburuk lan akademikoak egin ditu gehien bat; euskarari buruz ere idatzi du. Euskal Herriko Unibertsitatearen arduradun nagusi izan zena lehen aldiz sartu da fikzioaren eremuan. Bere baztandar jatorria abiapuntutzat hartuz, Cuzco hirian bizi izan zituen istorioak kontatzen dizkigu liburu honetan. Liburuan sartu ditu Salaburuk, besteak beste, hainbat auzoren kontakizunak, nafar ausarten abenturak, Erratzuriz leinuaren barreiatzea munduan eta Euskaltzaindiaren barne pasadizoak. Aipamen berezia merezi du Salaburuk erabiltzen duen hizkerak, Baztango eta Iparraldeko euskalkien oihar-tzunez josia. **– 'Cuzcoko kronikak' da liburuaren azpititulua. Idazten hasteko distantzia geografikoa beharrezkoa izan duzu, memoriaren pizgarri agian?** – Ez, batez ere gauza praktikoa izan da izenburu hori aukeratzearren arrazoia. Cuzcora egin nuen bidaia eman zidan aukera. Bidaia hura pixka bat surrealista izan zen, lan bidaia bat baizik izan ez bazen ere. Txosten bat egin behar nuen bidaia-oren ostean, eta, serioki egin beharrean, umorez beteriko

ELKARRIZKETA

FELIX GERENABARRENA

testua atera zitzaidan. Zazpizortzi orrialdetako dokumentu hartatik atera dut liburua.

– Hango eta hemengo kontuak aipatzen dituzu.

– Joan-etorrika nabil. Datu asko jasotzen ditut eta biltzen ditut nire anotazioetan. Hori oinarri gisa harturik, errealitatearen benetako pasarte batzuk fikzionatu ditut. Esate baterako, XX. mende hasieran Txileko andre batek gure sortetxera egin zuen egiazko bidaia fikzionatu dut.

– Badu zerikusirik Uriberen eta Atxagaren azken lanekin? Bide horrek izan al du eraginik zugan?

– Ez, kasualitatea izan da. Beti izan diot errespetu handia literaturari. Ez dut inoiz ikusi nire burua horretarako gai. Errazen egin zaidan bidetik sartu naiz, hau da, nire esperientziatik. Idazleak askotan oinarritzen dira errealitatean:

García Márquezek 'El general en su laberinto' idazten duenean Bolívarren azken egunetan oinarritzen da, eta inpresioa dut Paul Auster bezalako norbait irakurtzen dudanean, hor badirela pasadizo pertsonalak ere. Ni ere errealitatean oinarritu naiz, eta behin haria harturik, erraz joan zitzaidan testua, nahiz ordu asko eman ditudan, batez ere udan, testua behin eta berriz lantzen.

– Hizkera aldetik liburua oso berezia, ederra eta aberatsa da. Baztandar euskalkiaren erabilera oso deigarria da.

– Baztango hizkera, Lapurdi eta Baxe Nafarroakoa erabili ditut batua aberasteko. Azken batean, hori egiten dute idazleak: ezagunenak gipuzkoarrak dira, eta haiek beren hizkera erabiltzen dute, batuan. Nik ere nirea erabili dut, eta batuan txertatu dut. Horrekin uste dut eredu estandarra (batzuetan motelegia dena) beste ikuspuntu batetik hornitu dudala. Oreka bat aurkitu behar da. Eta ezin zara txokokeriatan sartu.

– Mundu tradizionalen hezia, modernitatearen Parisen ezagutzen duzu. Zure kontakizunetik badirudi Tanatosek arautzen zuen mundu batetik Erosek arautzen zuen mundurako bidaia egin zenuela.

– Hor izan dudana inpresioa da biluztu egin naizela. Inoiz ez dut hitz egin gai honi buruz. Baina hori da literatura azken batean. Egia da aipatzen duzuna, baina ez dut apropos egin.

– Zure familiako armarririk badu esanahi berezia liburuan. Zerekin lotzen duzu bereziki, jatorrizko Baztango jendeen nobleziarekin, nafartasunarekin edo historian zehar transmititzen diren balore batzuekin?

– Nobleziaren gaia Baztango haranaren historiarekin dago lotua. Beti izan da niretzat deigarria nola gure aita, baserritarra izanik, 'noblea' izan zitekeen. Gure sortetxeko batzuk Txilera joan ziren XVIII. mendean, eta gero armarriren bila etorri ziren. Askotan itzuli dira etxea ikustera, eta gure gurasoek kutxa batean gorde zuten haiek uzten zituzten txartel eta argazkiak. Beti izan dute halako lotura bat holako kontuekin, eta materialak bidaltzen dizkidate. Azke-

«Beti izan diot errespetu handia literaturari», azaltzen du Salaburuk

na, hemen duzun 'Diccionario histórico biográfico del noble valle y Universidad de Baztán'. Armariaren kontua kontatu nahi nuen, eta lagungarri izan zait azken urteotan Txileko jendearekin tratu gehiago izateak.

Akademia

– Akademiak hitz egiten duzu eta Euskaltzaindiak ere bai. Hauek ziren 'errateko zenituenak'?

– Euskaltzaindian hainbat gauza gertatu dira, eta gertakari horiek eman didate aukera hitz egiteko. Utzi behar nuen lekukotasuna horri buruz. Ni naiz Euskaltzaindian aktiboan denbora gehien daraman kidea, emerituak kenduta. Kudeaketari lotuta dauden gaiak kontatzen ditut. Gramatika batzordearen lana urte batez geldiarazi zuten, eta gero lehen bezala utzi zuten, guk eskatzen genuen moduan. Nekez ulertzen da hori.

– Erantzunik espero duzu?

– Artikulu bat idatzi nuen hau garbi kontatuz, baina ez zuen inork ere erantzun. Oraingoa literatura da, gutxiago espero dut erantzunik. Badakizu literaturan kontatzen dena beti egia hutsa dela.

– Sylvia Kristellen kontakizunak ere aipatzen dira liburuan. Behin Sylvia Kristel eza-

gutu eta gero, dena maldan behera al da?

– Ez, ez, dena da zelaia. Literaturan askotan agertzen da polo erotiko bat, eta nik nahi nuen nolabait liburuan sartu. Irakurleek Salaburu berri bat ezagutuko dute horrela.

– Gizarte egoerari buruzko aipamen gutxi egiten da liburuan. Nahita izan al da?

– Egia da. Biziki zaila ingo litzaidake gai horietaz hitz egitea ez bada saiakera formaren bitartez. Liburua berez nahirako luzea da. Edozein kasutan, zaila da horrelako liburu bat irakurtzen duzunean jakitea zer egiten duzun apropos eta zer nahi gabe. Batzuetan konturatzen nintzen kontrolatu ezin nituen gauzak idazten ari nintzela. Gramatikari buruzko liburuetan, teknikoak izanagatik, zure esku daukazu idazkiaren kontrola, baina literaturarekin kontrako sentsazioa izaten duzu. Horregatik, idazte prozesua bera oso aberasgarria izan da niretzat.

– Jarraipenik izango al du liburu honek? Arituko al zara berriro literatura arloan?

– Ez dut oraindik pentsatu. Anekdotak biltzen ari naiz orain. Atzo bertan Bartzelonan amerikar batekin mintzatu nintzen Arriaga bilbotar musikariari buruz, eta gertakizun bitxiak jaso nituen...